

# Euskal Herria eta independentzia

JOAN MARI TORREALDAI



**BI** TERMINO hauek ez omen dute elkartuta joaterik. Hori izan da TVEk erabili duen argumentua 'El Mundo del País Vasco' egunkariaren publizitate-spotaren emutzeza debekatzeko orduan.

Hau da hau hitzaren indar magiko! Iragarki komertzial huts bati zentsura politiko-ideologikoa ezarri diote. Nork ez daki, ordea, 'El Mundo' -k aldarrikatzen duen independentzia ez dela politikoa? Independentzia informatiboaz ari da 'El Mundo', bidezkoa denez. Baina, jakina da, ortodoxiak ez du testuingururik bereizten. Beste garai batzuk datozkit gogora. 1936-1939ko gerra galdu genuenetik, bi kontzeptu horien lotura debekaturik egon da. *Euskadi* eta *askatasuna* elkarrekin lotzea ere bai, debekaturik zegoen. Eta beste lotura asko.

Baina zentsurak ere bere aldiak izan ditu. Frantsismopean termino debekatuak aparte, hitz eta lotura sumagarriak ere bazeuden: txoria eta kaiola, lorea eta sasiartea, udaberria eta esperantza, eta abar. Euskal Herriaren errepresioa eta askatasun-egarria adierazten omen zuten. Beraz, debekatu, eta kitto. Terminoa debekatu, eta honekin batera kontzeptua. Geroago, trantsizio-garainan, testari garrantzian zion asko zentsurak. Terminok berak garrantzia pittin bat galdu egin zuten. Garrantzizkoago zen bestea, alegia, autoreak zer defendatzen zuten ber testuan, ez hainbeste kontzeptua. Ortodoxiak testuingurura lerratu zen, neurri batean, zentsura.

Hori kontuan izanik, atzera-pausu handia iruditzen zait oraingo betoak adierazten duena. Ortodoxiaren izenaren inposatu bait da zentsura, testuinguru eta terminoen egiakoa adierazpena aintzat hartu gabe. Are esanguratsuagoa da gertatua, ez bait da zentsura ofizialki orain.

Bidebatez esan dezadan, zera adierazten duela honetik, Euskal Herriaren independentzia zein mada-rikatua den, alegia, zentsurak beti kontraiplatu du oso ondo politika.

# Bakarra

RAMON ETXEZARRETA



**ZENBAKIAK** dabil-zenba kantuan. Hala komeniko da. Ez dakit zenbat mila arrazoi eder, ez dakit zenbat mila boto, ez dakit zenbat mila pezeta, ez dakit zenbat mila soluzio. Lehen arrazoiaren indarrekin atera zirenek ez dute arrazoirik ateratzen. Arrazoiari irri egiten ziotenek arrazoiak argudiatzen dituzte. Beti beranduago, beranduago bai behintzat, gauza berdintsuak egiteko. Iraultzaileen aktibismoarenak ere gero eta amerikanoago diren parafarmalien bidetik abiatzen dira. Zer izango ote da dena maiatzaren hogeiatazpiarian.

Arazoi eder guztiak desarrazoi bihurtu daitezke, botoak paper huts, pezetai xentimo eta soluzioak ele zahar. Indarrak zer egingo duen ez dakigu, baina bat baino gehiago geldituko da aheleziak jota. Zenbakiak izango dira orduan ere nagusi, zenbakiak dantzari. Argi beraz zenbakiak ere. Askotan nahiz eta gezurrik ez esan egia estali ere egiten dute. Ez dira gauza guztiak zenbakitan neurtzen.

Adibidez Gipuzkoan Diputatu Nagusitarako aurkezten diren kandidatoen euskararekikoari begirada bat botaz, konkultsio hau ateratzen dut. Guztien artean euskaraz analfabetoa ez dena bat, baina «bat» zenbakia da. Beraz, analfabetoa ez dena bakarra da. Bakarra! Abertzaleen arreta. Nik badakit zein den eta batzuek ez dute ezer sinestu nahi.

## EL DIARIO VASCO

### Itzalak tunelean

Azua lehendakariordearen mehatxua, Estatuaren zama orokorren ekarpena kupo bidez gutxi egingo duela esanez, baldin eta Madril azpiegituren azuia atzeratzen badu, nabigatzaileei oharra da, «obrak egin, Madril-kin edo Madril gabe egingo dira» enfasi horrekin. Azken horren arazoa honetan dago, elkar ulertze politikoan, Euskadiren finantz egingarritasunean obrei bere kabuz ekiteko, eta juridikoki posible izatean aldebakar baten erabakiz, Estatuari ordaindu beharreko Kupoa gutxitzea, diruaren zati baten aurrerakina kontseptatzeko.

LUIS CALDEVILLA / 1991-V-11

## EL MUNDO

### ETA, HB eta ezker alternatiboa

Sozialismoa, kapitalismoa, edo gizarte aldaketak ez zaizkio inoiz ETARI benetan interesatu. ETA ez da erakunde iraultzailea, erakunde nazionalista radikala baino; bere arerioa ez da kapitalismoa edo Estatu burgesa, Espainia baizik, garbi garbi esanda. Beste guztia estrategia edo takti-

# HEMEROTEKA

ka atxekidura baino ez da, bere helburu nagusia lortzeko. Eskuinak armatuz erabilitako «Albania Mendebaldeko Europaren bihotzean» esaldi celebrea, edo ezkerreko sektore baten sinetsmen inozoa. ETAK benetako eta domatu gabeko ezkerreko baloreak adierazten dituenari buruzkoa, ez dira zutik egoteko modukoak.

GURUTZ JAUREGI / 1991-V-11

## DEIA

### Itxaropen gutxioko seinaleak

Arazoa dago azken prozesutat eta agian behin betikotzat jotzen dena funtsezko oinarri politikoei animatzean. Kezka logikoa honetan dago, alegia, benetako planteamenduetan, duela hamar urte Gernikako eta Sauro Estatuak onartzea bultzatu zuten horietara egokitzean edo ez egokitzean. Gobernuak, Legebiltzarreko bere eusgarriak eta Administrazio zentralak, regateoko ekintza politikoan nabarmendu dira, eta batzutan, Euskadi eta Katalunian konkpetenzia maila sistematikoki ukatzean ere bai. Oinarriko legeginkin, bateragaritasun agente gisa dihardutena, eta Konstituzio Auzitegiaren erabilera politikoki gehiztekoarenkin eta alderdikeriakoarekin, bi



VILLEN / LIBERATION / 91-V-10

Estatu horien eremua murriztu egin nahi izan da. Eta egoera hori aldatzen ez bada, gauza gutxi espero daiteke Felipek bultzaturiko Paktu berriatik.

KEPA BORDEGARAI / 1991-V-11

## EL CORREO ESPAÑOL

### Trenbideetan atzerapenak berriro

Jose Borrellek konfirmatu egin zituen Bilbo, Gasteiz eta Donostia arteko trenbideen lotuneak egiteko epeari buruzko susmoak, euskal Y deiturikoa, azkarrena

jota ere, 1993. urtea baino lehen ez dela hasiko esan bait zuen. (...)

Egoera horren aurrean, Madril-eko Gobernuak jarrera irekiarekin hartu behar du kontuan, pre-juziorik gabe, obren hasiera Euskal Autonomi Elkarte baliabideekin finantzatzeko Eusko Jaur-laritzak egin eskaintza; diru hori gero Estatuari kupoagatik itzuli behar dion kopururik kenduta berreskuratuko litzateke. (...)

Ez dirudi, hala ere, sintonia hori lortzeko taktikarik hobereena Jon Azuak esandakoa izango denik.

EDITORIALA / 1991-V-11

# LUZENDARIARI

## Euskara jalgi hadi plazara!

Aspaldin finkaturik dugu topagunea bilakatu da Herri Urrats. Muga guztien gaitetik euskaltzalego osoa biltzeko gune eta aukera paregabea. Izan ere jokoan dagoenak zera eskatzen du: norberaren ziliborriari begira egon gabe indarrak batu eta etorkizunari aurrez aurre begiratu, euskarak behar dituen baliabideak eskura ditzan.

Hainbatek esana da herri ekitaldi hauek irudikeria edo *testimonialismo* hutsen erortzen direla, norberaren kontzientzia lasaitzeko tresnak izanik ez dutela benetako eraginik euskararen etorkizunean. Euskararen norberak bere egin behar duela eta bakoitzaren konprometua automatikoki sortzen ez dutenez gero Herri Urrats, Ibilaldia, Korrika eta halakoak alperrikako omen lirateke. Tamainako gezur galantagorik ez duzu errez aurkituko.

Eta Iparraldeko euskaltzalegoak, Eskaskaren inguru-irru bilduta, erakutsitaioa horren lekuko ezin ageriagoa.

Aurtengo ekitaldiak euskararen erabiltzearen beharra azpimarratzen du. Aurkezpenen antolatzaileek azaldu bezala, «zer balioluke euskararen defentsak eta honi buruzko lanak, hizkuntza hori ez bada erabiliko? Horixe dugu ba helburua, euskararen ez dabil izan eskolako hizkuntza soilik. Baina horretarako euskararen gizarte osoaren komunikazio hizkuntza gisa duen balioa aldarrikatu behar dugu. Zeregin honetan guztiok badugu zer eskeini. Herri Urratsen parte hartuz euskarak herri oso baten sostengua duela agerian utziko dugu.

Baina ez hori bakarrik. Herri Urrats tresna ezin eraginikorrago izango da, aurreko urteetan bezelaxe, euskararen kaleratze horrek behar dituen irakas-kuntza edo heziketa bideak eskuratzeko. Ezin dugu

ahaztu euskararen zokoratze prozesuak arrazoi garbiak dituela, botere frantsesak erabili baititu bere tresna guztiak euskararen desageratzeko. Guztion debetebehar eta erantzukizuna dugu euskarari behar dituen tresnak eskuragarri bilakatzeko. «Xalbador Ikastegia» aurrera ateratzea euskaltzale guztiotzat lehentasunezko gaia da, euskararen etorkizuna neurri handian horretan jokatzen delarik.

Argi dago beste hainbat tresna herri buruzko behar-ko duela gure hizkuntza nazionalak biziko bada: irakasteko osoaren euskalduntze eta trebatzea, eskola guztietara euskarazko irakaskuntza hedatu, euskararen ofizialtasunaren errekonozimendua, administrazioaren euskalduntzea, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen sostengua eta bultzada. ... Iparraldean euskarak bizi duen egoera hain larria izanik guzti horren beharrea gaude. Bide luzea izango duguna baina

itxaropenari atxekitzeko arrazoiak ez zaizkigu falta. Azken urteotako Herri Urrats guztiak herri osoaren borondatearen isla da ikurra bilakatu dira. Aurtengoan ere halaxe izango da, dudarik gabe.

Senperen bertan eguraldi zororoaren garabehera guztiak gaiturik Seaska eta Ikastolen Elkarteari alde aurretiko zorianak.

XABIER EGRIA  
BILBO

## Al Instituto Vasco de la Mujer

Jaso berria dugu Emakumearen Euskal Erakunde (Emakunde), Irakasle Elkarrietik bidalitako gutunaren erantzuna. Ez gara harritzen Eusko Jaurlaritzako edozein departamendu edo sailetik gaztelaniako gutunak eta erantzunak jasotzean, nahiz eta

aurretik bidalitako gutun edo eskakizunak euskaraz helerazi.

Baina oraingoan, gure harridura benetakoa izan da Emakundetik gaztelania hutsazko erantzuna jasotzerakoan. Ezin ukatu ohituta gaudela jadanik, tamalgaria bada ere onartzea, Euskal erakundeetatik gure euskararekiko erakusien duten begirune eza, baina badaude Eusko Gobernuaren sail batzuk inoiz ere gaztelazko erantzunak zigutela espero ez genuela eta horietako bat Emakundetik gure gaudela. Baina badirudi, guzti oker gaudela, jaso dugu gutunak hori frogatzen bait dugu. Beraz, lerro hauek gure salaketa egiteaz gain, dagokionari administrazioan euskarazko praktika bermatu dezan eskatzen diogu eta euskal administrazioa euskalduntzeko bidean eman behar diren urratsak garrantzita ditzan proposatzen diogu.

IRAKASLE ELKARTEA  
DONOSTIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZARRRETA

IRAKI URJA

Kontseilari Ordezkaria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90

## HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakitua, 16-1, / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22

Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskua. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kata. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11